

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2023ko ABENDUA · 328 zenbakia



**Urtarrilaren 15etik aurrera,
drogetenitturri.eus atarian ere**

ESKOLABARRI IKASTETXEA

HAUR HEZKUNTZA

D EREDUA

LEHEN HEZKUNTZA



HURBILDU ZAITEZ GU EZAGUTZERA

matrikula@eskolabbarri.com

943179036



Eskolabbarri

Bertoko kantuak Herritarren ahotik

Gaia: Gabon-kanta.

Olentzero pipa muturrian

(Entzuteko: www.alboka.es)

Olentzero
pipa muturrian,
arrautzatxo bikin,
bihar meriendatzeko
botilla arnuakin
bihar meriendatzeko
botilla arnuakin.



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIAK:

Freepik eta Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentin Mugarza,
San Pelayo Ikastetxea
eta Jabi Vidal.

ARGAZKIAK:

Fernan Alonso,
José Antonio Garrido,
Estibalitz González,
Eva Gutiérrez,
Valentin Mugarza,
Osso,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Piedi Eizagirre.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

José Antonio Garrido Carnero "Pancho" · Andorra

“Lana eta oparotasuna espero nituen eta, espero gabe, familia ere osatu nuen”

San Antonio auzoko Pancho tabernako semeetako bat da Jose Antonio Garrido, “Pantxo” ezizenez ezaguna. 25 urterekin Ermua utzi zuen eta ordutik Andorran bizi da, Sant Julià de Lòria parrokian. Han ditu lana eta familia, eta oso gustura bizi dela aitortzen duen arren, onartzen du sarritan sorterriaren mira duela.

Testua **DORLETA VIDAL**

Duela zenbat urte joan zinen Ermutik eta zergatik?

Duela 37 urte joan nintzen, garai hartan egon zen krisialdiak eraginda, eta ez zen erabaki erraza izan! Familia osoa utzi nuen Ermuan eta Andorrara etorri nintzen herrialde hau nolakoa izango zen jakin barik. **Zer topatzeko esperantzarekin joan zinen? Nola imajinatzen zenuen herrialde hori?**

Lana topatu eta oparotasuna espero nuen. Uste nuen merkataritza-aberastasun handiko herrialdea zela, eta lana topatzea erraza izango zela, eta hala izan zen. Eta, aurreikusi gabe, familia ere sortu nuen.

Hasieran, egon zen atentzioa eman zizunik?

Bai, harritu ninduen bertan zegoen eta dagoen segur-



José Antonio txikitán, makurtuta, "Pancho" aita atzean duela. Haiekin batera, herriko hainbat harri-jasotzaile.

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

JULEN

**JULEN IZARRA
GARRAIOAK**

Bidegain kalea 1
48240 BERRIZ
636 958 339

**AMAIA
HARATEGIA**

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



tasunak, Espainiarekin inolako zerikusirik ez duena; baita heldu nintzenez zegoen lan-eskaintza zabalak ere. Oso deigarria iruditu zitzaidan lan-sistema bera, janaria eta ohiturak, eta azken hauek oso-oso gertutik ezagutzen ditut, alabak asko estimatzen dituelako.

Zein hizkuntzatan hitz egiten da bertan? Ondo mol-datzen zara?

Andorran hainbat hizkuntzatan hitz egiten da, baina katalana da hizkuntza ofiziala. Etorri baino lehen ez nuen menderatzen, baina orain maila polita daukat. Gustatuko litzaidake katalanez hobeto hitz egitea,

"Aisialdian, urteko sasoiaren arabera, eskiatu, osterak egin edo igerilekura joaten gara"



baina ez dut izan ondo ikasteko aukerarik.

Gustura zaude?

Bai, oso gustura, espero ez nuen lan eta familia giroa ditudalako.

Nolako da zure egun arrunt bat?

Nire egunerokotasuna oso arrunta da: lanera joaten naiz, bazkaltzeko etenaldia egin, eta lanaldia bukatutakoan familiarekin elkartzen naiz. Aisialdian hainbat gauza egiten ditut, urteko sasoiaren arabera: neguan, ahal dudanean, eskiatzera joaten naiz etxekoekin; udan, aldiz, osteratxoia egin eta igerilekura joaten gara. Horrez gain, bakarrik nagoenean, asko erlaxatzen nau gustuko pelikulak eta telesailak Netfixen ikusteak.

Zerbaiten falta sentitzen duzu?

Nire herriaren mira daukat, nire herria izango delako beti, eta horko senideak. Ahal dudan guztietan haiek ikustera joaten saiatzen naiz, elkarrekin denbora igarotzeko.

Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

2020an egon nintzen, baina egoera ez zen batere atsegina izan.

Ermura bizitzera bueltatuko zinateke?

Ez dut baztertzen, egia esan. Esan dudan bezala, nire sorterrria da, eta badakit egunen batean bueltatuko naizela.

“Liburu hau nire bidaiia ere bada, iluntasunetik argitasunera doana”

Eva Gutiérrez · Psikologoa eta idazlea



Psikologiaren munduan murgildu zen Eva Gutiérrez ermuarra duela hamarkada inguru, eta harremanen esparruan espezializatuta dago. Bere larruan harreman toxikoa sufritu eta gero —hau da, min ematen duten harreman bat—, egoera horretan harrapatuta dauden pertsonak lagundu nahi ditu, eta horretarako hainbat erremintaz baliatzen da: kontsultaz, sare sozialez eta, azarotik hona, literaturaz ere.

Testua **DORLETA VIDAL**

Duela hilabete eskas kaleratu duzu zure lehen liburua: *Si es tóxico no es amor*. Zer nolako harrera izan du?

Oso ona, eta ez nuen espero. Bai inguruko jendearen aldetik, bai pazienteen aldetik eta bai beste profesional batzuen aldetik ere. Gainera, hainbat elkarte jarri dira nirekin harremanetan ere. Harrituta nago!

Nori dago zuzenduta liburu hau?

Harreman toxiko batean daudenei edo egon direnei, hala nola mota horretako dinamiketan erori nahi ez dutenei.

Zer topatuko du irakurleak zure estreinako lan honetan?

Liburua bidaiia moduko bat da, iluntasunetik argitasunera doana, toxikotik osasungarrira, eta tartean ariketa praktikoak eta kontsultan entzundako testigantzak jaso ditut. Liburua lau zatitan banatuta dago: lehen bietan (Harreman toxiko baten erradiografia eta

Zer dago harreman toxiko baten atzean) kontzeptuak ulertu, egoerak aztertu eta identifikazioa bilatu nahi dut. Azken bi kapituluak (Nola irten harreman toxiko batetik eta Harreman osasuntsu eta seguruak eraiki) praktikoagoak dira. Argi dago liburuak ez duela terapia ordezkatu, baina asko lagundu dezake.

Liburuaren hasieran harreman toxiko batean egon zirela kontatzen duzu. Zaila izan zen bizi izandakoari hitzak jartzea?

Idatzi nuen azken zatia izan zen, eta asko kostatu zitzaidan, behar bezala egiteko goitik behera zabaldu behar nintzelako. Aldi berean, beharrezkoa iruditzen zitzaidan, irakurleak nondik natorren jakin dezan. Hainbat bider berridatzi nuen.

Zerbaitetan lagundu dizu horri buruz idazteak?

Terapia bezala ez, gai hau oso landuta daukadalako





dagoeneko eta gainditu dudalako, baina nire historia hari bezala erabili dut liburuan, irakurlea nola sentitu daitekeen ulertzeko. Azken finean liburu honek nire bidaia propioa irudikatzen du, hala nola jende ugari egiten ari den bidaia ere.

Izan ere, bolo-bolo dabilen gaia da...

Bai, maila ekonomiko eta sozial guztietan daude harreman toxikoak, eta baita adin tarte guztietan ere. Oso kezagarria iruditzen zait gero eta jende gazteagoa dagoela inplikaturik. Haien artean, horrelako indarkeria sotila oso normalizatuta dago, eta horrek esan nahi du gizarte bezala gauzak oso gaizki egiten ari garela.

Horrelako harremanetan indarkeria fisikoa ere ematen da?

Ez dauka zertan. Indarkeria fisikoa icebergaren ton-torra da, baina biolentzia psikologikoa, ia oharkabean pasatu daitekeena, oso normalizatuta dago, eta hori oso arrisksua da. Gehienetan etxe barruan gertatzen da, askotan zaila izan daiteke frogatzea, baina indarkeria fisikoaren besteko mina ematen du, eta haren aurretik presente dago beti.

Harreman toxikoetan daudenek badaukate ezaugarri komunik?

Autoestimu oso baxua izaten dute, harremanak berak eraginda. Oso ohikoa da ispiluan begiratzea eta ez ezagutzea aurrean duten pertsona: "non geratu da lehen nintzen pertsona?" Dena den, harreman toxikoek maila guztietan eragiten dituzte ondorioak: sozialean (ez daukazu inorekin irteteko gogorik), profesionalean (askok baja hartzen dute ezin dutelako beste ezertan pentsatu)... Errua sentitzea ere oso ohikoa da: "nola heldu naiz hona", "zergatik lagatzen dut nire seme-alabek hau ikusten"... Biktimak bere buruan jartzen du fokoa, eta horrek suntsitu egiten du barrutik. Hori dela-eta, liburuan askotan esaten dut: "zuk asko balio duzu".

Harreman toxiko batetik irten ahal izateko, harreman horrek min egiten dizula onartu behar duzu lehengo eta behin. Erraza da zure harremana osasungarria ez dela antzematea?

"Gero eta jende gazteagoa dago harreman toxikoetan harrapatuta"

"Biolentzia psikologikoa, ia oharkabean pasatu daitekeena, oso normalizatuta dago"



Ez, askotan ez gara konturatzen. Jarrera asko bikotearen harremanaren errutinetako zati dira, eta ontzat ematen dira. Baina adibidez: lanetik bueltatzean, etxera sartu baino lehen, bikotekidea pozik edo haserre egongo den pentsatzeak antsietatea sortzen dizu. Hori indarkeria da? Ez, jakina, baina ez da osasungarria. Gaur eztabaidatuko dugu? Honek konpentsatzen dit? Tira, kanpotik erraza dirudi, baina normalean harreman horretan kateatuta dagoena ez da konturatzen. **Zergatik da hain zaila horrelako harreman batetik irtetea?**

Harreman bat haustea ez da batere erraza. Ez da bakarrik zure bikotekidea lagatzea, baizik eta ordura arte duzun bizitzari agur izatea: seme-alabak, alokairua edo hipoteka, eguneroko errutinak, lagunak, familia, askotan ere lana, herria... Eta burura datozkizun galdera guztiak: "zer esango dute?", "nora noa ni daukadan adinarekin?", "nola azalduko dut?", "sinistuko didate?"... Horregatik, pertsona askok aukeratzen dute egoera mingarri horietan jarraitzea, deserosoak izan arren, errealitate ezagunak direlako.

Horien jarrera aldatzeak bultzatu zintuen liburua idaztera?

Gutxienez, hausnarketa egitera bultzatu nahi ditut.

Bestalde, argitaletxeak animatu ninduen kontsultan lantzen dudana idatziz jasotzera. Nirekin jarri zen harremanetan, eta liburua idazteko proposamena egin zidan. Penguin Random House oso argitaletxe ezaguna da, eta hasieran txantxa zela pentsatu nuen!

Eta nolatan aukeratu zintuzten, bada?

2022ko hasieran kontu bat egin nuen Instagramen, eta ia egunero harreman toxikoekin zerikusia duten argitalpenak egiten ditut. Jarraitzaileen artean kazetari bat dago, eta haren bitartez egin omen zuten lotura.

Nola ikusi duzu zure burua idazle bezala?

Hasiera oso gogorra egin zitzaidan, buruan hainbat ideia nituelako, baina ez nekien nola lotu bata bestearekin. Behin ideiak ordenatu eta gero, lan polita izan da, amatasunarekin eta bizitzarekin uztartu behar izan dudana arren. Urtebete eman zidaten liburua prestatzeko, eta nire beldurrik handiena epea ez betetzeko zen, baina ondo joan da. Dena den, oso malguak izan dira, eta laguntzeko prest egon dira beti.

Zer izan da zailena?

"Pertsona askok aukeratzen dute harreman mingarri horietan jarraitzea, deseroso egon arren"

"Beste psikologo batzuek liburua erabiltzen dute euren saioetan, eta hori oso pozgarria da niretzat"



Eva Gutiérrez liburuaren aurkezpenean, azaroaren 23an, Gasteizen.

Testu ulergarria sortzea. Psikologian hitz tekniko asko daude, eta haiek saihestu behar izan ditut, ulergarritasunaren mesedetan. Liburuaren beste aldean emakume nagusi bat eta batxilergoko ikasle bat irudikatzen nituen, eta bientzako izan behar zen testu ulergarria.

Uste duzu helburua lortu duzula?

Uste dut liburua oso erabilgarria dela, eta beste psikologoekin feedbacka heltzen zait noizbehinka, esanez liburua erabili dutela euren saioetan. Hori oso pozgarria da niretzat!

Kontsultan, sare sozialetan, liburu artean... non aritzen zara gusturen?

Kontsultan, eta uste dut nire onena ere bertan ematen dudala. Hortaz, kontsultarekin jarraitu eta liburuak izaten ari duen oihartzunaz gozatzen jarraitzeko asmoa daukat momentuz.



**ZUZENBIDE
KONTUAK**

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK

Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95

ALBOKA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

**MUSIKA
ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatiapablo.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

Gabonak dira eta etxien aulki huts bat dogu

Maitte dogun bateron bat hiltziek suposatzen daben dolue, Gabonetan orduen eta minberiaue izaten dala erreparaute, Kontzejuzarren euron testigantzak partekatu zittuezen Karmen Amezua berriztarrak, eta Isabel Garitagoitia eta Igone Amesti mallabitarrek, doluen laguntzeko aholku desbardiñek emonda. Han esandakuen laburpen txikixe da hurrengokue.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Karmen Amezua



“Pertsona bat galtzen dogunien, sortzen dana da miñe eta hutsune itzela. Gure bizitza geratu eitten da; gizartie bere erritmuen doie, baina guk ezin dogu jarraitu, pixkanaka goiez, ahal dogun neurrixen. Lagunak eta senidiek normalien euren erritmue bajatzen dabe gurekin

egoteko, baina prisa eukitzen dabe gu ondo ikusteko, tristura horretatik etaratzeko. Dolue gaiñera indibiduala da: gure kasuen, senarrak eta bixok semie galdu gendun, baiña duelo prozesu oso desberdiñek ein genduzen, nahiz eta galera bardiñe izan.

Data edo toki jakin batzuk juandako pertsoniak in lotzen doguz, eta hor bera falta da. Tristurie Gabone-

“Lehelengo urtien shock egoeran egoten gara, baina bigarrena izaten da sarriten gogorraue”

tan presentiago eitten da, baina orokortu nahiko neuke ospakizun guztietara: batzuentzat Gabonak dira, beste batzuentzat herriko jaixek, Durangoko azoka, etxekuen urtebetetziek, juan jakunarena...

Lehelengo urtien shock egoeran egoten gara, egoera barrire egokitzen, baina bigarrena izaten da sarriten gogorraue, ze gu zatixe konzienteauk gara hutsune horretaz. Topau atsedenerako tartiek eta egin negar biher dozun bakotxien: estresa bajatzen dau eta bestiari erakusten dotse ez zaozela ondo.

Gabon bueltan kanpuen ospakizune eta alaittasune nagusi eta zu doluen. Une baten erabagi biherko dozu zer egin horrek zelebrau biherrokin: izan leike ez ospatzie, familia talde haundixe batzeko ohitturie euki badogu, etxe-etxeukuok bakarrik batzie, Gabonak ospatzen ez diren kultura batera bidaiatzie... Ahaleginez topau modu bat falta dana gure artera ekartzeko sinbolikoki, beti be familixiak in adostute, izan kandela bat ixotuaz, izan erretratu bat edo audio bat jarritz...

“Guri be falta jaku”, “Eizu gugaittik!”, “Fuertie izan biher zara!” dira sarriten etxekui entzundako berbak. Zer egin? Lehelengo isiltasun hormie apurtu, berba ein, doluen gaozenok komentau zer ein nahi dogun. Batek bakarrik pasatzie nahi dabela, errespetau erabagixe. Eta holakuetan kanpotik egin ahal dan bakarra da egon, entzun eta lagundu; egote hutsakin be asko laguntzen dotsagu dueluen dauenai”.



Ezkerretik hasita, Karmen Amezua, Isabel Garitagoitia eta Igone Amesti.

Isabel Garitagoitia

“Nire lehelengo faltie senarrana izan zan, 40 urte alkarrekin eta bapatientien... Siñistu eziñekue, ezin dala eta ezin dala esaten. Jarraixen ama inpedidute geratu zan, aitte hil zan, ama gero... Gurasuena no-



labaitteko alibixue izan zan: ni ez nenguen laguntzeko, duelo gogorrenien neuen, neure buruen jabe be ez nintzen eta gurasuez jabetzeko bez.

Etxien ezin zan berbaik ein, nik pentsatzen neban eurengaittik eta eurek nigaittik “Pasau zunan pasau zana...” esaten eban amak be eta hortxe amaitzen zan. Alabekin gehixau, alabekin beti; psikologuetara juen giñen hirurok, duelo talde batera be bai Donostire... ni geratu barik nenbillen harutz eta honutz, zonbi baten moduen, nundik nora be igerri eziñik. Etxien ezin nin-

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
 EMPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
 GREMIOEN KUDEAKETA
 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
 San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
 info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com
 660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ANTXITXIKETAN AISIALDIA
 • Diputazio kalea, 8 - 10, behea.
PSIKOMOTRIZITATEA LOGOPEDIA
PSIKOTERAPIA LUDOTEKA
ERREFORTZU ESKOLARRA
 ☎ 943 576 124 ⌚ 10.00 - 13.30
 📞 747 453 607 ⌚ 15.30 - 19.30
 📍 Antxixiketan
 ✉ info@antxixiketan.com

tzen egon, beti kanpuen zeozer topatzen: apuntatzen nintzen mille gauzetara, dana premiñazkue, ze ikusten neban prozesue bakarrik ezin nebala ein, profesionalen laguntasune biher nebala, eta txarla edo aktibidadietarik bueltan hobetotxuago sentitzen nintzela. Berba ein, bestienak entzun, norberanak kontau eta apurke-apurke aurrera! Eibarko Esperientzia Eskolan be apuntau nintzen, udako koloniak antolau zittuezen eta hantxe ezagutu neban neure bikotie dana oin. Eta bapatient bizipoza eta bizitzeko gogue eta aurrera jarraitzeko gogue... Dana amaittute zeuen barruko sensaziñotik bizi leikela siñisten hastera pasau nintzen.

Lehelengo Gabonetan alabak eta loibak bideo ederrak ein zittuezen eta alkarrekin egin gendun negar. Bigarren Gabonetan, ene, hiru jarleku hutsik! Gogorra! Baina gurasuena alibixue be bai, ze urte morduakin ondo jun zien, heriotza ona eta bizitza luzie eukitte gero. Euren herixotziek alibixue ekartiek txarto sentidu eragitten eustan, zelan pentsau hori gurasuek juen dielako! Denporiakin aitzen juen nintzen.

Exige esateko duelo prozesuen asko lagundute sentidu nintzen, etxekuekin, lagunekin... eta eskertzen dot ikeragarri. Ez dakitt zelan ein leiken aurrera holakuek barik!”

Igone Amesti

“Gure miñe ez zan aitan herixotziakin hasi, miñe hasi zan ixte zortzi urte lehenago, gaixotasun degeneratibue zeukela esan zoskuenien, eta ez zeuela tratamendurik. Inpotentzia haundixaz bizi gendun: “Oin gaixotu,



jubilau barrixen, bizitza disfrutatzen hasi danien, oin prisa barik jaiki leikienien...” Erabaki gendun geratzen jakun tarte horretan aitagandik gozatu biher gendula guk eta aitak gugandik. Gabonetan “Miñari etara mihiñe” lema mo-

“Duelo gogorrenien, neure buruen jabe be ez nintzen”

“Zenbat bildur notsen hiltzeko momentuari eta oin espero neban agurrik gozoena lez ikusten dot!”

dukue asmau eta argazki bat etara gendun danok mihiñe etarutzen kamariai. Gabon ohittura bihurtu jaku erretratu hori eittiana.

Apurka-apurka juen gara zetorrenan ideiarda eitten, prestatzen. Bizitza autonomo eittetik aita beste batek lagundu biher izatera pasau zan: bakarrik jantzi edo jatetik aitari laguntzera eta hortik aita janztera edo jaten emotera pasau giñen. Seiñaliek ziren horrek danok: aita badoie itzaltzen, badoie makaltzen, badoie agur esaten... Prozesu oso gogorra bizi izan gendun, baiña aldi berien zorteko gara bizitzak denbora emon zoskulako eta zukue etara geuntselako. Aitari azken agurra emoteko aukerie be euki gendun etxeko danok. Zenbat bildur notsen momentu horri eta oin espero neban agurrik polit eta gozoena lez ikusten dot! Oroigarri bat prestatu neban eta Gabonetan etxekuei proposatu notsien aitan lekuen jartzie, eta ondo begintandu jakuen. Urte horretako erretratu mitikue etarateran isiltasune ein zan, jarleku baten bera falta zan.

Doluen lagundu dostie alde batetik aitan zatitxo bat nirekin deuketela pentsatzie: bere errautsekin pitxia batzuk egin genduzen eta niriek egun berezixetan janzten dittut, bere hutsunie sentitzen doten horrek egunotan. Bestetik, gero eta gehixau ahalegintzen naz aitan hutsuniori presente eitten: alaba nausixakin berba asko eitten dot aittitten gaiñien, goguen euki deixen erretratuek erakusten dutsadaz, aittittekin loturie dakezen kantuek kantatzen dutsadaz... Aita inportantie izan zan niretzat eta inportantzia hori transmititzen ahalegintzen naz”.



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak
Pertsianak / Segurtasun pertsianak / Pertsiana dekoratiboak
Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eitxo-sareak

<p>Tailerra: Zearreko Buelta 2 943 17 66 34 - 630 01 13 41 48260 Ermua (Bizkaia)</p>	<p>Erakusketa: Karabixa 1 48260 Ermua (Bizkaia) 943 17 98 60 persianasorbe@gmail.com</p>
--	--



ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Olentzero eta Mari Domingiren oharra iritsi zaigu

Olentzero eta Mari Domingiren oharra jaso dugu esanez abenduaren 24an, urtero legez Mallabian egongo direla. Azken ukituak egiten dituzten bitartean, Gabon kantak entzutea atsegin dutela diote; pozik aditu dute Petrilean batzeko asmoa dutela herritarrek, 10:45ean, Gabon kantuak abestuz kalejiran, trikitilari eta panderojole gazteen doinu alaiez lagunduta. Oharrean azaltzen diguten bezala, Udaletxe osteko zuhaitza zain omen dago norbaitek apaintzeko, eta horretara gonbidatzen dituzte ume eta nagusi. Hori bai etxeetatik eramandako gabon-apaingarriekin jantzea eskatzen dute, aukeran birziklatuak eta berrerabilgarriak izan daitezela erregutuz. Musikabik jardungo duela giroa alaitzen eta 12:30ak aldera azalduko direla. Azken apunte bat ere egiten dute: baserritar jantzita etortzeko eta gutunak ez ahazteko gero!

Gabonetako egitaraua

Abenduaren 22an, ostirala

17:30 Petanka txapelketa, herriko frontoian. 12 urte-tik gorakoentzat.

Abenduaren 24an, igandea

10:45 Topagunea Petrilean Gabonetako kantak abes-tekto.

11:00 Kalez kale kantu kantari trikitilari eta panderojole gazteekin. Ondoren, Udaletxe atzeko zuhaitza apaindu. Mallabiko musikariek giroa alaituko dute.

12:30 Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria Udaletxe ondoan. Gero, plazara Olentzero eta Mari Domingirekin, bertan gutunak jasotzeko.

18:30 Olentzero eta Mari Domingiren laguntzaileek opariak bananduko dituzte herriko frontoian.

Abenduaren 28a, osteguna

19:00 Skimetrajea. 2023 edizioko film labur sarituen hautaketa, Kontzejuzarrean.

Abenduaren 29an, ostirala

10:30 Baserriz baserri Gabon eskean. Ibilbidea: Ge-rea, Arandoño eta Berano.

15:00 Tenis partiduak, eskolako frontoian.

Urtarrilaren 2an eta 3an

11:30-13:30 // 16:30-19:30 Gabonetako haur parkea, herriko frontoian.

Urtarrilaren 7a, igandea

16:00 Domino txapelketa, Kontzejuzarrean. 12 urte-tik beherakoentzat.



Unzaga Plaza
Hartz Klinika - Clínica Dental

Kirurgia-implanteak
Odontopediatria
PADI zerbitzua
Ortodontzia
Estetika
...eta batez ere prebentzioa

Dra. Maite Orozco Ventura

Zure dentista gertu

Unzaga plaza 5, 4º
Eibar

943 70 23 85
660 03 33 29

clinica@unzagadental.eus
www.unzagadental.eus

Zorionak eta urte berri on!

Komunikazio arloan bailaratzearen aldeko "hautu estrategikoa" sinatu du Euskal Birusak



Euskal Birusa Euskara Elkarteko lehendakaria den Estibalitz Gonzálezek "hautu estrategikoa" sinatzen, bailarako beste elkarteetako lehendakariak atzen dituela. BARREN

Abenduaren 11n, astelehenez, bailarako lau euskara elkartetako lehendakariak batu ziren Elgoibarren —Ermuko Euskal Birusa, Soraluzeko Pil-pilean, Elgoibarko Izarra eta Debako Zuhatza—, *Bailaratzearen aldeko hautu estrategikoa* sinatzeko.

Adierazi dutenez, datozen hila-beteetan lau elkarteetako komunikabideek —Ermuko eta Mallabiko *Drogeteniturririk*, Soraluzeko *Pil-pileanek*, Elgoibarko eta Mendaroko *Barrenek* eta Debako *Berriketanek*— euren arteko elkarlana areagotuko dute eta bailara mailan egituratzeko pausoak emango dituzte, "komunikazio talde sendoagoa" eraikitzeko. "Uste dugu elkarrekin jardunda gaitasun handiagoa lor dezakegula gure komunikabideak berritzeko, izaera multimedia indartzeko, gure profesionalen formazioa eta lan-baldintzak hobetzeko... Eta, horrela,

herritarrei kazetaritza ekoizpen erakargarriagoak eta kalitatezkoagoak eskaintzeko modua izango dugula", azaldu dute.

Autonomia eta elkarlana

Bi oinarri nagusi zehaztu dituzte bide horretan aurrera egiteko: "Autonomia eta elkarlana". Autonomia, "hedabideek komunikazioan zentratutako egitura eta funtzionamendua beregain izan dezaten", eta elkarlana, komunikazioa hain azkar aldatzen ari den garaiotan, "bailarako hedabideekin eta gainerako euskarazko tokiko hedabideekin elkarlanean jardunda hobeto eta errazago" lan egin ahalko dutela uste dutelako.

Hala, lau euskara elkarteek konpromiso irmoa adierazi dute komunikabideei behar duten "laguntza eta babesa" eskaintzeko, norabide horretan aurrera egin dezaten.

Bailarako lau euskara elkartek, tartean Ermuko Euskal Birusak, tokiko komunikabideak bailara mailan egituratzeko aldeko adierazpena sinatu berri dute. Jakinarazi dutenez, urtea hastarekin batera emango dute lehen pauso garrantzitsua: webgune berriak sortu, aurretik zeudenak berritu eta plataforma berean ezartzea. Hala, urtarrilaren 15ean, drogeteniturrri.eus argitaratuko da, Ermuko eta Mallabiko berriak jasoko dituen.

Erakundeen babesa

Elkarteetako lehendakariak eta herri komunikabideetako lankideek ez ezik, hainbat erakundetako ordezkariak ere parte hartu zuten Elgoibarko agerraldian. Bertan izan ziren, besteak beste, Ermuko, Soraluzeko, Elgoibarko, Mendaroko eta Debako udaletako ordezkariak; Tokikomekoak eta Debegesakoak; Gipuzkoako eta Bizkaiko aldundietako euskara zuzendariak; eta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendaria. Guztien artean, era-

Elkarlana areagotuko dute eta bailara mailan egituratzeko pausoak emango dituzte, komunikazio talde sendoagoa eraikitzeko



Elkarteetako eta erakundeetako ordezkariak Elgoibarren egindako agerraldian. BARREN

kundeeek babes zabala adierazi zioten egindako hautu estrategikoari.

Proiektu irekia

Ekitaldian azaldu zutenaz, bailaratzearen aldeko hautu estrategikoa hiru urteren ostean iritsi da. Izan ere, eskualdeko komunikabideek 2020an ekin zioten euren arteko elkarlana indartzeko gogoeta prozesuari, eta hiru urteotan horretarako aukera teoriko eta praktikoak landu dituzte elkarrekin, Alberto Etxeandia aholkulariaren laguntzarekin.

Oraingoz, hastapeneko prozesu horretan parte hartu duten lau elkarteek eta komunikabideek erabaki dute bailaratzearen aldeko hautu estrategikoarekin bat egitea, baina, adierazi dutenez, proiektua "irekia" da eta etorkizunean ere zabalik izango da proiektuarekin bat egin nahi duten eragileek bertan parte hartzeko.

Urtarrilean *drogeteniturgi.eus* martxan

2024arekin batera bistaratuko da elkarlanaren bidean emandako pauso kualitatibo nagusienetako bat. Izan ere, urtarrilaren 15ean, bailarako lau hedabideek euren webguneak Tokikomen plataforma digital bateratuaren bidez argitaratuko dituzte, eskualdeko udal guztiek finantzatu duten inbertsio planari esker. Hori hala, *drogeteniturgi.eus* webgunea sortuko da Ermuan eta Mallabian, bi herri hauek gertatu direnak eta gertatzeko daudenak jasoko dituen, hala nola ikusentzunezkoak, eskualdeko berriak eta aldizkariaren edizio digitalak, besteak beste. Horrez gain, Elgoibarko eta Mendaroko *barren.eus* atariak eta Debako *berriketan.eus*-ek itxura berrituko dute.

Atariok punta-puntako diseinu eta funtzionalitateak izango dituzte, bereziki zuzenduak edukia

Eskualdeko lau komunikabideek euren webguneak Tokikomen plataforma digital bateratuaren bidez argitaratuko dituzte

gailu mugikorretatik kontsumitze-ko. Horrez gain, hemendik aurrera webgune guztiak edizio gune berberetik gestionatuko dituzte (aurrez plataforma bera ezarria zuen Sorailuzeko *Plaentzia.eus* barne) eta, horri esker, asko erraztuko da interes komuneko edukia trukea komunikabideen artean.

Webguneak berrituta, toki komunikabideek interneten duten jarduna indartu eta garatu nahi dute, herritarrei eduki gehiago eta modu erakargarriagoan eskaintzeko.



Aixola errekaaren alboan, errota baten arrastoak mantentzen dituen Urbedeinkatu baserri jausiaren ondoan, txabola izandako eraikin berriztatua. Argazkilaria: Fernan Alonso.

Gabonetako erasketa gida



Probaleku 7 - Ermua
943 17 46 51



Kokko



943 38 33 65
Zubiaurre 16-18 behea
48260 ERMUA (Bizkaia)

Eskaerak egiteko:
f i




ALTALDI
Correduría de Seguros, S.L.
ermua@altaldi.com




INMOBILIARIA J.S.
www.inmojs.com
943 17 1802
976 212575
info@inmojs.com






Probaleku 8 · ERMUA 943 17 01 43 · 943 17 18 02



Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK



VI Centenario 10 · Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com

Salón de Belleza



irati

San Pelayo 4, behea ERMUA · 943 17 41 49



Adin guztietarako kirol-jantzi eta oinetakoak.
Ekipazioak, estanzazioa, jaietarako eta ezkondu aurreko agurretarako arropak, kartelak, flyerrak, giltzatakak, eta askoz gehiago....

Zubiaurre 14 · ERMUA
943 030 448







F. PASCUAL



MUEBLES DE COCINA INTERIORES

VIRGINIA PASCUAL

Zubiaurre, 36-38 (behea)
Tel y Fax: 943 17 68 28
48260 ERMUA (Bizkaia)

www.cocinaspascual.com

Arane, 6
Tlf.: 943 20 61 64
Fax: 943 20 85 43
20600 EIBAR
(Gipuzkoa)



SAGARDUI
poltsak

Adin guztietarako poltsak, karterak, gerrikoak, aterkiak, maletak, osagarriak eta opariak.

943 17 03 05
b.sagardui@gmail.com

Zubiaurre 20
48260 Ermua (Bizkaia)



Bitxi-denda
Erloju-denda

Tailer propioa

*Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte*

San Pelayo zeh. 4 ERMUA (Bizkaia) • joyeriasenen.com • joyeriasenen@gmail.com



Komentukua 2 · Ermua · 943 170 277

Calvin Klein
Punto Blanco
DIM
Playtex
Tommy Hilfiger
Freya
John Frank...

f Instagram Comercio Izagirre

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu



943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es



Zubiaurre 2 · 48260 ERMUA | 943 17 00 65
www.quetzalmoda.com



**Zorionak
eta urte berri on!!**

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675



Erdikokale 3 · ERMUA
943 57 03 12 / 648 85 05 38

Iratxe Ugalde · Ingeniari informatikoa

“Artista ez ulertua izan zen Markos Gimeno”

Markos Gimenek urteetan diseinatu eta sortutako palindromo, hitz-joko, ilustrazio, txiste eta abarrok ordenagailu eta koaderno desberdinetan zituen gordeta, milaka artxibo eta paperetan. Iratxe Ugalde ermuarrak urtebete eman du hark sortutakoak ordenatzen; eta lana sakonago ezagutzeko aukera ematen digute bere berbek.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Ze esparrutan egin zenuen topo Markosekin?

Umeak ginenean kolonietan elkar ezagutu genuen eta gero gaztetan bideogintzak batu gintuen: rallyetan parte hartzen hasi ginen, bideo txikiak egiten eta 2003 urte inguruan, palindromoen gainean Eskilapekon eman zuen ikastaroan parte hartu nuen. La-

gunak eginda sarritan partekatuko genituen asmoak, elkarrizketak, kontzertuak...

Mundu digitalak asko erakartzen zuen...

Bai, aitzindaria izan zen eta autodidakta, bazekien bi-lutzen nahi zuen hori praktikan jarri ahal izateko gero: esaterako, blogak euskaraz egiteko lehen sistema mar-txan jartzeaz batera berea sortu zuen. Bestalde, 2011n sortutako www.zerorajaso.com bere web orria ez da zaharkitua geratu, modernoa jarraitzen du izaten: diseinu gaurkotua du, gardena, garbia...

Zendu zenean, bere ordenagailuetan zituen lanen balioaz zelan konturatu zineten?

Hil baino pare bat hilabete lehenago berarekin egon nintzen, proiektu batzuetarako aholkularitza eskatu zidan. Zendu zenean familiari esan nion hainbatetan egonak ginela elkarrekin, banekiela pixkat ze proiektu zituen eta zerbait egin nezakeela. Etxeko gauzetan, sarean... obra piloa topatu nuen. Ordenatzen hasi nintzen, hasieran indartsu, baina bere ordenagailuan sartu ahala tristura itzelari aurre egin behar izan nion, bere intimitatean sartzea bezala izaten ari zen eta asko kostatu zitzaidan pena hari aurre egitea. Gerora marrazki eta hitz-joko bakoitza harrituta utzi naute, bere buruan gordetzen zuen horrekin erabat liluratuta.

Zelan izan da berreskuratze prozesua?

Urtebete eman nuen horretan. Karpetetan ordenatu eta sistemaren bi kopia egitea lortu nuen; artxibo batzuk programa oso zailak erabilita bakarrik ikusi ahal dira eta horiek eskuragarri jartzen jardun nuen ere. Bestalde, berak erabilitako letra motak eta egindako ilustrazioak eguneratutako programetara ekarri nituen, segituan zaharkitzen den mundua delako digitala. Omenaldi bat egingo ziotela esan zidatenean, erakusketa baterako nahibeste gauza zegoela aipatu nien eta horrekin osatu genuen 404 egun Markos gabe,

“Markos Gimenoren marrazki eta hitz-joko bakoitzak harrituta utzi naute”



“Nire ustez bere lanik zoragarriena Skizopozik da, audio-liburu bat. Pentsa ze formatu ezohikoa!”

Lobianon hizkuntz, arte plastiko eta ikus-entzunezko materialekin egindako erakusketa.

Kopururik esan genezake?

Seiehun orrialde topatu ditut bere diseinu, ilustrazio, postal eta kartelekin. Palindromoak dira nagusi, baina badaude ere txiste edo esaldi ironikoak, bere umore bereziaren eredu.

Zure palindromorik gustukoena?

Momentuaren arabera. Gustatzen zait ikustea hizkuntzarekin nola jolasten duen, hitzak piezak bezala hartu eta hankaz gora nola jartzen dituen, beste esanahi batekin berriak sortzeko. Dena den, nire ustez bere lanik zoragarriena *Skizopozik* da, audio-liburu bat. Pentsa ze formatu ezohikoa!

Bere obra sakonetik ezagututa, zelan definituko zenuke?

Bere oharretan idatzita zuen arren “palindromoak ez dute ezertarako balio!”, berantzako haiek izan ziren hain justu edertasuna bilatzeko bidea nire ustez. Ze hori bilatzen zuen beti Markosek: edertasuna, berdinen palindromo edo hitz-jokoekin zein musika jotzen berarentzat; hori eta umorea ere aipatuko nuke: berezia zuen umorea, ironikoa, sarkastikoa, beltza... sarritan bere buruaz barre egiteko erabiltzen zuena, eta hori sana da.

Eta Markos zein zen?



Markos Gimenezaren 101 LetraKarteL erakusketaren inaugurazioa Gernikan.

Artista bat, bere dohain horretan neurri handi batean ez ulertua. Bere burua ez zen aro honetakoa, aurreratua etorri zen. Eta ziur nago euskarari egin dion ekarpena eskertu eta aitortuko zaiola.

Eta orain?

Hasi nintzenez bere lana arakatzen konturatu nintzen oso garrantzitsua zela hau guztia gordetzea eta ezagutzera ematea. Markosen lanak merezi zuela leku bat izatea. Batzuk jada ordenatuta daude, diseinuak bilduta, data jarrita... baina nik guztiaren zati txiki bat besterik ez dut begiratu: obra izugarria du oraindik CDtan, emailean, ohar-blok elektronikoa... Hurrengo pausoa Markosek sortutako palindromo, kalanbur, hitzokei, arteletra eta hitz-joko guztiak katalogatzea izango zen, norbaitek interesa balu, zerbait ikasi edo lanen bat egitea nahiko balu, zehazki zer da goen jakin dezan.



Erabili meloia

Gorde erosketatiketa

Kontsumitu buruarekin

#KontsumitzenJakin



kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO




www.kontsumobide.eus

San Martin errifako sarituak

1. Saria:

Maite eta Nacho.




2. Saria:

Tania.



Zatoz, Newton! ipuina kaleratu du Txabi Arnal ermuarrak



Txabi Arnal idazleak eta Eleni Papachristou ilustratzaileak *Zatoz, Newton!* album ilustratua kaleratu berri dute. Honek, arkakuso baten abenturak jasotzen ditu, Newton txakurraren bila doan bitartean. Bestalde, sortu berri den Gehiago Gara

ekimenak Txabi Arnal saritu zuen abenduaren 16an, umeentzako ipuinetan heriotzaren eta do luaren inguruan egiten duen ekarpenagatik.

Ermuko gazteek 20 euroren truke ikasi ahal izango dute euskara

Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza lerro berri bat jarri du martxan eta, hari esker, 16, 17 edo 18 urteko gazteek euskara ikasi ahal izango dute 20 euroren truke. C1 maila lortzeko prestakuntza klaseetan parte hartuko dute, hain zuzen ere, astearte eta ostegunetan 16:30etik 18:30era, urtarrilaren 9tik aurrera. HABEko azterketak, aldiz, maiztean burutuko dira. Izena eman nahi dutenek Kaltxango AEK Euskaltegira jo beharko dute (943 17 19 40, 688 746 480, kaltxango@aek.eus), urtarrilaren 12a baino lehen.

Abenduaren 22an zabalduko da Tonbola Solidarioa

Zubiaurre kaleko 12. zenbakian egongo da aurtan Ermuko Tonbola Solidarioa, abenduaren 22tik aurrera. Boletok erosi nahi dituztenak 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bitartean hurbildu behar



dira kokapen berri honetara. Txarrelok euro batean salduko dira, eta jasotako diru guztia atzerrian elkartasun proiektuak burutzen dituzten ermuarren artean banatuko da.

Zure publizitatea

DROGETEN
ITTURRI

943 17 93 50
688 63 28 76
drogeten@gmail.com

Caperos

Probaleku z/g (ERMUA)
Pintxoak
Razioak
Kaxolak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
699 292 043
636 549 154

MEDITERRÁNEA
VINTAGE STORE

Arropa eta osagarriak

Orbe Kardinale plaza 6
Ermua, Bizkaia
678 359 337

mediterranea_vintage
mediterranea_vintage

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

@LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)


Itziar Arrieta markinarrak irabazi du Danobatgroupeko lehiaketa



Danobatgroup Kooperatiba Taldeak lehiaketa antolatu du aurten ere Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko. "Euskaraz izango gara" lelopean, Kooperatiba Taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei eta gizarte osoari orokorrean zuzendu da lehiaketa, eta Itziar Arrieta markinarrak irabazi du saria: produktu ekologikoz osatutako otarre eder

bat. Orain dela 23 urtetik hona ari da kooperatiba talde hau bere egunerokotasuna euskaraz izateko lanean, eta 2021-2024ko plan estrategikoaren markoan ari da euskara planeko erronkak eta helburuak lantzen. Danobatgroupek harreman sare zabala du eta lanerako hizkuntza asko erabili eta kudeatzen ditu, baina Euskal Herrian dauden eragileekin euskara erabiltzeko erabakia hartua du. Horren adierazgarri dira taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak eta lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak. "Euskaraz izango gara" da Danobatgroupek etorkizunerako aurreikusten duen agertokia, eta agertoki hori errealitate bihurtzeko lanean ari da, bai eguneroko lanean, ikerketa eta garapenean zein teknologia berrietan, besteak beste.

Ermuan Kantuan-eko liburu berria kaleratuko da



Euskal Birusa Euskarra Elkartearen eta Gazte Asanbladaren elkarlanari esker, Ermuan Kantuan egitasmoari lotutako kantu liburua argitaratuko da laster. Liburu honetan 213 abesti bildu dira, eta Ermuko Udalaren dirulaguntza jaso du.

2025eko maiatzean burutuko da hurrengo Euskaraldia

2025eko maiatzaren 15etik 25era izango da hurrengo Euskaraldia, abenduaren 14an Donostiako Tabacalean egindako aurkezpenaren arabera. Egitasmo honen laugarren edizioa udaberriaren burutuko da lehen aldiz, urteko sasoi horretan kalean jende gehiago ibili ohi delako eta horrek mesede egingo diolako ariketa honi. Bestalde, 2024an burutu beharrean, 2025era atzeratu da hurrengo Euskaraldia, Korrikarekin txandaka eta ez urte berean egiteko.

Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505

Torrealdia

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOIA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 943030527

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

Ossho taldea:

“Gure lehen abestiarekin dolua irudikatu nahi izan dugu”

Sortu berri den talde ermuarrek bere lehen abestia eta bideoa atera berri du. Laster etorriko dira EP berriak, taldearen aurkezpena eta diskoa.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Nortzuk zarete taldean?

Taldean lau gara: Aitor, ahotsa eta gitarrak; Unai, beste gitarra; Manu, bateria; eta Fernan baxua.

Nola sortu zen taldea?

Zerbait sortzeko gogoia genuen. Unai eta ni (Aitor) lagunak ginen aurretik. Fernan Musika Eskolan ezagutu nuen eta Manurekin lokala partekatzen dut. Proposamena bota eta taldea sortu zen.

Eta nondik dator izena?

Osho autorearen liburu bat irakurri nuen, *Amor, Libertad, Soledad* deitua, eta autorearen izena buruan geratu zitzaidan. Sonoritate oso polita zuela iruditu zitzaidan, eta bi “s”-rekin jartzea erabaki genuen.

Zein da zuen estiloa?

Bada rock-metal mota bat lantzen dugu, rock progresibo bat, metalera heltzen ez dena, melodikoagoa.

EPa grabatu berri duzue, zertaz doa?

Dolua irudikatu nahi genuen, norbait galdu duzun momentu horretako pausak. Hori hainbat ideia ezberdinekin lotu dugu, baina elementurik garrantzitsuen euria izan da. Euriak du loturarik estuena. Baziren ideia zehatz batzuk abestiaren zati bakoitzerako, eta horren arabera muntatu da bideoa.



Abesti gehiago egiteko asmoa duzue?

Bai, bi EP gehiago, bakoitza bere bideoarekin, eta gero disko bat grabatu nahi dugu, bost abesti izango dituen. Apirilaren 20an Lobianon aurkeztuko dugu taldea eta ordurako grabatuta izatea gustatuko litzaiguke.

Bigarren EPra ze plan duzue?

Bigarren EPa guk grabatuko dugu. Bai bideoa grabatu eta bai aktore lanak egin, nahiz eta mozorro antzeko batekin agetuko garen. Zati batzuk baditugu, baina oraindik geratzen zaigu.

Eta abestiak nola grabatzen dituzue?

Bada, etxetik egiten dugu. Hasiera batean batek barrik zekien nola egin, baina oraingoan besteak ere ikasten goaz. Eskuz eginiko lana da guztiz, nahiz eta gero masterizatzeko Kataluniara bidaltzen dugun. Beste guztia guk eginikoa da.

Zuekin kontaktatzeko edota jarraitzeko?

Bide hauek erabili daitezke: osshorockband@gmail.com helbidea, Instagrameko Osshorockband kontua, edo Ossho YouTubeko kanala.

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

Hemendik hara, Euskadi, Espainia eta European zehar

Urria eta azaroan zehar gure ikastetxeak hainbat irteera egin izan ditu, guretzako Eskola aktiboa oso garrantzitsua delako. Lehenak, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak izan ziren. Barnetegi batera joan ziren Astitzera (Nafarroara) eta mendi eta larre zoragarriak gozatu zuten. Jarraian, 5. LHkoak Zarautzera joan ziren, eta bertan itsasoko haizea arnastu zuten eta kresalaz zipriztindu. DBH-koek ere izan dituzte bereak: 1. DBHkoek Gasteiz eta bere inguruak bisitatu zituzten, gatzarriak, upategiak eta katedralak barne; 3. DBHkoek, ordea, Madrilera egin zuten bidaiak, eta hainbat lekutan egon ziren: Parlamentuan, museoetan, etab. Azkenik, nagusiak, hots, 1. eta 2. Batxilergoek, hegazkin bat hartu zuten eta Erromara iritsi ziren, bertako monumentuak bisitatzeko eta janariaz gozatzeko.



Osasuna, gure altxorra

Aurten ere, osasunari buruzko gaiak landu izan dira ikastetxean, kasu honetan astearteetan zehar egindako proiektu baten bidez. Hainbat ekintzez osatuta egon da proiektu hau, eta LHkoak eta DBHak aritu dira zeregin horietan, osasunaren alderdi ezberdinak lantzeko: bai osasun fisikoa bai osasun mentala. Oso garrantzitsua dela pentsatzen dugu, gure bizitzaren oinarria delako, altxor bat, azken finean.



Euskararen Eguna, guk ere bai!

Euskara gure hizkuntza delako ere, aurten ere ospatu izan dugu Euskararen Eguna. Abenduaren 3a igandea izan zenez, hurrengo astelehenean ospatu genuen. Batxilergoek Lehen Hezkuntza guztiarekin kooperazioa egin zuten, euskal kulturari buruzko galdera eta jokoen bidez. Gainera euskarari buruzko kanta bat abes-


tu zuten, *Loa eta Laia*. Bestalde, 4., 5. eta 6. LHkoak Ermua Antzokira joan ziren, herriko beste eskolekin batera Euskararen Eguna ospatzera.





FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



TXALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
 pintxoak, afariak
 eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipirolak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdalaizpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGUAK
943 030 299

Matxin Txiki tabernia



Irulitxa auzuan, trenbidian erromadak pasatu eta ezkerretara zeuazen hiru etxietatik azkenenguan zeuan Matxin Txikineko tabernia. Etxia 1870 inguruan eraiki zan. Aspaldi, Casto Orbe eta Nati Agirregomezkorta kargotu ziran taberniaz eta bikotiaren hiru alabak betiko izango ziran Matxin Txikinekuak. Caston arreba Maria, Santos Suinaga pelotarixakin ezkondu zean, aitxa Jose Martinetik jasotako "Matxin Txikito" gatzizetik ezagutua kantxan, eta haren baten taberniaren izena inspiratu zeban kirolari aparta. 1961tik 1972ra Joaquin Madina eta Flor Elduayenek atendidu zeben: bazkarixak, afarixak, urtebetetze-guatekiak, eztegu-bazkarixak... Ismael González eta M^{te} Teresa Gabilondok hartu zeben gero Teodoro Imirizaldu eta Pili Santaciliakin; hauetxek itxi zeben 2002an eta bota ostian gaur egunian dagozan etxiak altxatu ziran.



solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata 8:30-13:00

943 170474

ileapaindegia
Silvia
peluquería

688819336



JABI VIDAL

Bizitzan behin bakarrik egin dituzun gauzak

"Gertatzen den guztia une horretan bakarrik gertatzen da, eta ez da inoiz gehiago errepikatzen"

Bizitzan behin bakarrik egin dituen gauzei buruz galdetzen badiogu Ainhoari, momentu oso bereziak gogoratzen ditu: amestutako bidaia hura, hiru mila metroko tontor zail hori, elurretan arroparik gabe korriketan ibilitako egun hura, mendi puntan *vivac* egiten ari zenean ekaitza hasi zen gau hura... Hala ere, bizitzan gertatzen zaigun guztia behin bakarrik gertatzen zaigu. Gertatzen den guztia une horretan bakarrik gertatzen da, eta ez da inoiz gehiago errepikatzen. Horren jakitun izateak, laguntzen gaitu bizitasun gehiagorekin bizitzen, emozio eta intentsitate gehiagorekin, edo Evaristok abesten zuen moduan: *Gaur da etorkizuna*.

Gabonak heldu dira, jende askorengan poztasuna eragiten duen garaia da, baina pertsona asko deprimitzen duena ere bai. Gabonak iristen direnean, "ea bizkor pasatzen diren" pentsatzen duten pertsona asko daude. Ainhoa horrelakoa da, ez zaizkio Gabonak gustatzen eta gainera gaur egun txar bat eduki du, liburutegira joan da, mugikorrarekin artxibo bat partekatu behar zuen eta ez da ondo moldatu, ez dakiela ezer sentitu du. Gaur egun tontoa dela sentitu du.

Ainhoak, baina, asko daki, eta bereziki da trebea hainbat lan guztiz garrantzitsu eta gizartearentzako funtsezkoak egiten. Mediku batek bezala zaindu eta osatu ditu ingurukoak, etxea kudeatu du, eraman ditu etxeko kontuak (une on eta ez hain onetan), psikiatra lanak ere egin ditu (entzun, lagundu, aholkatu...), gelak antolatu ditu diseinatzaile onenaren antzera eta arropak konpondu jostun baten abileziaz... Zerrenda bukaezina da. Eta hala eta guztiz ere, Ainhoak "ez daki ezer".

Ez dakit Ainhoa kontsolatzeko balioko duen, baina agian Gabon gaueko afarian edo Gabonetako bazkarian gertatuko dena behin bakarrik gertatuko dela pentsatzeak lagunduko dio Ainhoari unea atseginagoa egiten. Agian, pentsatuko balu hurrengo urtean norbait falta daitekeela mahai horretan, edo bera ere egoera ezberdin batean egon daitekeela, modu ezberdin batera biziko du une hori.

Pertsona guztiek merezi dugu zainduak izatea, bereziki zaintzale direnak, eta, horrekin batera, ezin dugu ahaztu pertsona guztiek dugula bai geure burua eta bai besteak zaintzeko ardura, Ainhoak egin zuen moduan.

Bada justizia egiteko ordua.



1953

E R M U A

Probalekuan Miren Idigoras bere hiru seme-alabekin: Iñaki, Ane Miren eta Yon Mirandona. Arteagan bizi arren, sakratua zen Gabonetan eta Santixauetan Ermura etortzea. Ane Mirenek aita Felixek, itsasontzietan sukaldari, New Yorketik ekarritako kapela modernoa jantzi zuen orduan egunean, jatorrian izan zuen gerezi-mortxaka falta bazuen ere. Neska-mutikoen arropak ere Ameriketatik ekarritako oihalekin eginda daude. Laukotearen atzean, orduko eraikin eta negozioak: alde batean, Juli Querido eta Dominguezen arraindegiak, atzerago Salaberrianeke etxea eta, arbola ostean ezkatatuta, Zinko eta Arrako baserriak; bestean, Ignacio Onandia, Ermu alkatearen aurreneko ferretereria eta haren gaineko etxea, bizilagunez beteta.

1997

M A L L A B I A



1997ko urriaren 26an Mallabiko elizan omenaldia egin zioten Emilio Praderari, elizako organista lez 50 urte bete zituelako. Ospakizun ondorengo argazkian Emiliokin batera agertzen dira: Felipa Aranburu, Francisca Narbaiza, Maritxu Arrieta, Milagros Pradera, Mari Tere Biritxinaga, Mari Luz Txurruka, Zezilia Biritxinaga, Maritxu Roteta, Eugenia Garitaonandia, Milagros Abendibar, Paulina Milikua, Eusebia Milikua, Mari Lourdes Pradera, Matea Gallastegi, Brigida Pradera, Paz Pradera, Sebastiana Txurruka, Maritxu Uzuriaga, Isidora Txurruka eta Mari Conchi Arriaga.

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
"LAN BARE" ZAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ZERMİK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMİK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA - 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

IRAGARKI LABURRAK

Antxitxiketan begirale taldea langile bila dabil. Baldintzak: euskara maila altua, DBHn errefortzu akademikoa emateko gaitasuna, umeen taldeak dinamizatzeko gaitasuna, berehalako prestutasuna. Baloratuko da: begirale titulua eta hezkuntzarekin lotutako ikasketak. Interesa dutenek: antxitxiketan@antxitxiketan.com

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko, goizez zein arratsalde. Esperientziarekin eta magisteritza ikasketekin. © 648 625 209.

Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da, esperientziaduna eta Haur Hezkuntzan graduatua. © 685 584 587

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat © 688 683 655.



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Urtarrilaren 19a.**



Urtarrilaren 2an Zorionak **Laida!!** 9 urte beteko dituzu, neska handi!! Ondo pasa eguna! Musu handi bat familia guztiaren partez. Maite zaitugu!



Zorionakkkk gure etxeko altxorrei!!! Asko maite zaituztegu. Segi horrela, bikote. Musu asko etxekoen partez!! **Mara** 12 urte (urtarrilaren 27an) eta **Joel** 9 urte (abendua 21ean).



Abenduarean 16an Zorionak **Gorka!** 8 urte handi bete dituzu! Segi beti bezain alai eta txintxo. Patxo handi bat zure familia guztiaren partez.



Abenduaren 29an Zorionak **Oscar!** Ondo pasa zure egunean. Muxu erraldoi bat Lucia, Libe eta amatxoren partez. Asko maite zaitugu.



Abenduaren 30ean **Aratz** maitxia! Azkenian heldu da zure 7. urtebetetzia. Mundiala zara, segi bardin!! Muxu bana familia osuan partez. Maitxe maitxe.

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO OKELAK
ETXEREN EGINDAKO TXORIZO ODOLOSTE ETA KROKETAK
PROBLEKU 3 - 943 170563
ERMUA

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

arral
Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señorans
Cava Oriol Rossell
arral@arral97.com | Pol.Goitondo-Goilhoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

FAMILIA
LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VINOZ
nitida
T.943176075

RIF
ITURGINTZA KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

30 URTARRILEKO AGENDA

ZINEA

Hilaren 6tik 8ra:

"Champions" + "Scrapper"

Hilaren 13tik 15era:

"La trenza" + "Robot Dreams"

Hilaren 20tik 22ra:

"A fuego lento" +
"Sobre todo de noche"

Hilaren 27tik 29ra:

"Los que quedan" + "El favor"

Ermua Antzokian.

Hainbat ordutegi.

Antolatzailea: Ermuko Udala.

ZINE-KLUBA

Hilak 4:

"Anatomía de una caída"

Hilak 11:

"Femme"

Hilak 18:

"Fallen leaves"

Hilak 25:

"Yo, capitán."

Ermua Antzokian.

20:30ean.

Antolatzailea: Ermuko Udala.

Laguntzailea: Mudo-drogt

cinematografo.

HAURENTZAKO ZINEA

Hilak 7:

"Wonka"

Hilak 14:

"Migrazioa. Bidaia hatezina"
(Euskeraz)

Hilak 21:

"Wish. El poder de los deseos"

Hilak 28:

"Patrick" (Euskeraz)

Ermua Antzokian. 17:00etan.

Antolatzailea: Ermuko Udala.

MUSIKA

Hilak 20:

Trío medianoche.

SLC6A1 elkartearen aldeko
kontzertua.

16:15ean.

Ermua Antzokia.

Sarrera: 5€.

Hilak 20:

Blues kontzertua:

Automatic City.

20:00etan.

Lobiano Kulturgunean.

Sarrera: 10€.

Antolatzailea: Ermuko Udala.



Hilak 26:

Kontzertua: El Kanka.

20:30ean.

Ermua Antzokian.

Sarrerak: 15€.

Antolatzailea: Ermuko Udala.

ANTZERKIA

Hilak 19:

"Mierda de ciudad", Olatz
Gorrotxategi konpainiaren
eskutik. 20:30ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 10€.

Antolatzailea: Ermuko Udala.



HAURENTZAKO EKITALDIAK

Hilaren 4ra arte:

Gabonetako Haur Parkea:

puzgarriak, ohe elastikoak,
ludotekak, bideo-kontsolak,
jumping, tailerrak...

11:00etatik 13:00etara eta
16:00etatik 20:00etara.

Sarrera: 2€.

Antolatzailea: Ermuko Udala.

Hilak 3:

Haur eta gazteentzako

kontzertua: "Goazen 10.0",

Pausokaren eskutik.

16:00 eta 18:00etan.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 6€.

Antolatzailea: Ermuko Udala.



Hilak 5:

Errege Magoen Kabalgata.

18:00etatik aurrera. San Lo-

renzo ikastetxetik hasita.

Laguntzailea: Ermuko Kul-

tur zentroak eta Te gusta la

ruta Ermua elkarte.

BESTELAKOAK

Hilak 21:

Extremadurako txarri-boda.

10:00etatik aurrera.

Extremadurako Zentruan.

Antolatzailea: Extremadu-

rako Kultur Zentroa.

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Errealak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Zeharbatea 8 Td. 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia

**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA




**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Horts estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea



Horts klinika berritu eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
Ermua niklinika@gmail.com



irale
Horts Klinika
Clínica Dental

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

OSASUN GIDA



**IR
AZ**

Odontologia
Fisioterapia

943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com




Zuri egokitzen
den odontologia

La odontología
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
✉ info@clnicasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)



AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col.1666 EGOITZ FORMOSO col.1675



ONAK LEIRE MAYORA

PODLOGOIA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

ERMUAN KANTUAN

Laster izango da
kalean kantu liburu berria!!



Babeslea:



Euskal
Birusa
Elkartea